# Elebitasuna

Galderak: ⓐ Elebitasun motak, definitu eta azaldu bakoitzean nor, zer den elebiduna.

ⓑ Lurralde elebiduna, ez da galarzkatsua Elebitasun soziala, beraz, bai, zergaitik?

ⓒ Aipatu giza talde edo hizkuntz komunitate baten elebiduntze prozesuaren ezaugarriak.

Ⓐ BANAKO ELEBITASUNA: Bi hizkuntzatez baliatzeko gai den pertsona da. Pertsona hau, bizi dezake: bai lurralde elebidun batean, zein hizkuntz bakarra hitzegiten denean, gauza da bi hizkuntz hitzegiten jakitea. Eman daiteke, pertsona bat elebidun izatea, lurralde elebidun batean baina ez hitzegitea lurralde honetan hitzegiten diren hizkuntzak. Adb: Katalan batek hitzegin dezake, gaztelania eta frantsesa eta ez katalana. Berdin du norekin hitzegiten dituen eta zertaz edo zein moduan.

LURRALDE ELEBIDUNA: hizkuntzaren aldetik argino zedarritutako zona bitan banatzen den espazio geografikoari. Zona batean hizkuntza bat erabiliko da, eta bestean beriz, beste bat. Adibide oso polita Suizan dugu, segun eta Suizako ze lekutan, Alemana, Italiera eta Frantsesa erabiltzen dira.

ELEBITASUN SOZIALA: Hizkuntza bat baino gehiago erabiltzen duten norbanako multzoak dira. Hizkuntza bat amena da, eta modu naturalez ikasia da, beste beriz, Taldeari dagokiona da. Hizkuntz txandaketa hau arau sozial batzuek diktatzen duten moduan egiten da. Baina, askotan ez dago orekarik bi hizkuntzen artean, eta egoera gatazkatsua izaten da.

(B) Eskualde elebiduna, ez da gatazkatsua, pertsonak ez direlako elebidunak, hau da, eskualde batean baldin bazaude, hizkuntza bat erabiliko da eta bestean baldin bazaude beste bat. Orekaturik eta ondo nabarmenduik daude, bater ere orekaturik.

Elebitasun soziala, berriz, gatazkatsua da, askotan desoreka dagoelako. Hizkuntza bat etxean ikasten da eta kalean, eta bestea berriz, behar modula inposatzen da. Hau da H1 modu naturalean ikasten dute 1 taldekoak eta H2-a berriz, inposatua. 2. Taldekoak berriz, H2 modu naturalean ikasten dute eta H1 berriz, bakarrik nahi badute, ez beharkizun soziala bezala.

Gatazka, sortzen da, H2 ez jakiteak marginazioa suposatzen duelako. Ondorioz gatazka hau bukatuko litzateke, bi hizkuntzak boterea banatuko balute.

(C)